



Industria Segurtasunari buruzko ekainaren 30eko **81/2020 Dekretuko** galdera-erantzunen zerrenda:

Orokorra	G1	81/2020 Dekretuak zer enpresa motari eragiten die?
	E1	<p>Mota guztietako enpresei. Enpresak ez du zertan 81/2020 industria-segurtasunari buruzko Dekretuaren eraginpean dagoen erregelamenduren batekin lotura zuzenik izan.</p> <p>Edozein enpresak izan ditzake instalazioak bere eraikinean (adibidez, behe-tentsioko instalazioak, instalazio termikoak, hozkailuak, igogailuak, karga-jasogailuak...), eta, beraz, horien titularrak behar bezala mantendu beharko ditu, dagokion erregelamenduan ezarritako betebeharrak kontuan hartuta.</p> <p>Gainera, bere instalazioei dagokien dokumentazioa administrazioaren eskura jartzeko betebeharra ere badu. Era berean, etorkizuneko instalazioen arduraduna da, bai titularrak berak sinatzen baditu, bai horretarako aukeratu duen ordezkariak sinatzen baditu.</p>



Orokorra	G2	<b>Dokumentazio teknikoa (Proiektua) jada ez bada administrazioan entregatzen, titularrak zaintzen du, eta hark kontrolatzen du proiektua teknikoki zuzena dela eta indarrean dagoen araudia betetzen duela. Nire ustez, aipatzen duzuen kontrola titularrak DRn adierazitako dokumentazio guztia duela kontrolatzeko da, baina zehaztasun teknikoaren kontrola ere barne hartzen du, nolabait deitzearren? Edo paper hori, jada ez du Administrazioak egingo, eta erantzukizun guztia proiektugileek izango dute?</b>
	E2	<p>Instalazio bat administrazioan behar bezala erregistratuta egoteak ez du esan nahi azken horren erantzukizuna denik. Diseinuan, gauzatzean eta mantentzean esku hartzen duen agente bakoitzak bere administrazio-erantzukizuna hartu behar du bere gain, baina azken arduraduna instalazioaren titularra izango da, eta hark bestelako erantzukizunak eskatu ahal izango ditu bide zibiletik.</p> <p>Proiektugileek eta obra-ziurtagiriak egiten dituztenek jakin behar dute beren dokumentuetan egiaztatzen dutela instalazioa proiektuarekin bat etorri gauzatu dela eta dokumentu bidez ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela.</p>



Orokorra	G3	Non deskargatu dezaket dekretua eta/edo EHAA kontsultetarako edo non eska dezaket?
	E3	<a href="https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/07/2002742e.pdf">https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/07/2002742e.pdf</a>



Orokorra	G4	¿Nola sar naiteke izapidetza elektronikora?
	E4	Hurrengo estekako erregistroak, baimenak eta kexak atalean: <a href="https://www.euskadi.eus/internet-bidezko-tramiteak/web01-a2indust/eu/">https://www.euskadi.eus/internet-bidezko-tramiteak/web01-a2indust/eu/</a>



Orokorra	G5	<b>Non deskargatu ditzaket erantzukizunpeko adierazpenaren eta beharrezko gainerako dokumentuen formatu berriak?</b>
	E5	<p><a href="https://www.euskadi.eus/instalazioen-erantzukizunpeko-adierazpenak/web01-a2indust/eu/">https://www.euskadi.eus/instalazioen-erantzukizunpeko-adierazpenak/web01-a2indust/eu/</a></p> <p>Jakinarazten dizuegu aurrez aurreko izapidetzea industria-segurtasuneko araudiaren mende dauden jardueren titularrak ez diren pertsonak baino ezin dutela erabili.</p>



Orokorra	G6	Dudak argitzeko telefonorik edo emailik ba al dago?
	E6	<a href="mailto:s-seg-ind@euskadi.eus">s-seg-ind@euskadi.eus</a>



Orokorra	<b>G7</b>	<b>Enpresak edo ondasun-erkidegoa diren azpikontratekin lan egiten dugu. Ba al dago bete beharreko betekizun berririk? Aurkeztu beharreko dokumentazio berria?</b>
	<b>E7</b>	81/2020 Dekretuak ez ditu aldatu alderdi horretan bete beharreko arauzko betekizunak.



Orokorra	<b>G8</b>	<b>Aipatu da dokumentazioa posta elektronikoz eskatu eta titularrari bidali behar zaiola (nahitaez bete beharreko eremu bat dago), eta eraikitzaileari?</b>
	<b>E8</b>	Instalazioaren segurtasunaren kontrola egiteko, administrazioaren komunikazioak titularrari edo instalazioan jarduten duten agente gaituei egingo zaizkie.





Orokorra	<b>G9</b>	<b>Beste lokal batera joan berri gara. Nola jokatu behar dugu enpresaren egoitza soziala aldatzeko eta jakinarazpenak jasotzeko?</b>
	<b>E9</b>	Aldaketa hori egiteko, industria-erregistroko datuak aldatzeko aplikazio telematikoa erabil daiteke:  <a href="https://www.euskadi.eus/industria-erregistroa-eguneratzea/web01-a2indust/eu/">https://www.euskadi.eus/industria-erregistroa-eguneratzea/web01-a2indust/eu/</a>



Orokorra	<b>G10</b>	<b>Zerbitzuan jarri izanaren jakinarazpena jasotzen da edo 6 hilabeteren ondoren administrazio-isiltasunez ebazten da? Sortu al da horren ordezko beste erregistro mota bat?</b>
	<b>E10</b>	Aurretiazko administrazio-baimenik behar ez duten instalazioei dagokienez, behar bezala zigilatutako erantzukizuneko adierazpenaren dokumentua da instalazioa instalazioen erregistroan behar bezala inskribatu dela egiaztatuko duen egiaztigiri bakarra.



Orokorra	<b>G11</b>	<b>Baimena eskatzeko menuan, nor da baimendua eta nor baimenduna, baimendunak ez didalako uzten dagokion IFK (pertsona juridikoaren IFZ) jartzen?</b>
	<b>E11</b>	Pertsona fisiko (baimendua) bati administrazioarekin izapideak egiteko baimena ematen dion pertsona fisikoa edo juridikoa da baimen-emailea. Baimena beti pertsona fisiko batek duenez, pertsona fisikoaren IFZ bat sartu beharko du.



Orokorra	G12	81/2020 Dekretuaren aurkezpenean nabarmentzen da titularrari dokumentazio guztia eman behar zaiola. Zer gertatzen da titularrak galtzen badu, zelan egiaztatuko da akatsa norena izan den?
	E12	Titularrak dokumentazioa galtzen badu, titularraren erantzukizuna izango da. Instalatzaileak edo dokumentazioa titularrari eman behar dionak modu frogagarrian egiaztatu behar du titularrari arauzko dokumentazio guztia eman diola.



Orokorra	<b>G13</b>	<b>Industriak ikuskapen bat egiten duenean eta dokumentazioan edo instalazioan akatsak aurkitzen direnean, nola izapidetuko da akatsen zuzenketa? Akatsak zuzentzeko ziurtagiria eta dagokion dokumentazioa aurkeztu behar badira, eskabide orokorraren bidez bidali ahal izango da agiri hori?</b>
	<b>E13</b>	Administrazioak dagoeneko gaitu du eragindako agenteak antzemandako akatsak zuzendu direla jakinarazteko modua. Komunikazio hori bide telematikoz egin ahal izango da, baldin eta komunikatzailea horretara behartuta badago.



Orokorra	<b>G14</b>	<b>Ingeniaritza gisa, orain arte segurtasun-instalazio bat legeztatzeko proiektuak izapidetzen genituen industrian. Orain, besteak beste dekretu honen 8. artikulua betetzen dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, komenigarria litzateke baimendun gisa bezala izapidetzea (sinaduraren arduraduna), eta ez eskaeraren aurkezle gisa. Administrazioaren agente laguntzailea izan arren, ezin dugu bermatu instalazioaren titularrak uneoro izango duenik diseinuaren eta zerbitzuan jartzearen a posteriori dokumentazio egokia edo haren mantentze-lan zuzena.</b>
	<b>E14</b>	<p>Izapideak egiteko erabiliko duten figura (titularraren ordezkaria edo baimendua) titular bakoitzaren borondatearen arabera izango da. Titularraren ordezkari gisa izapideak egiteko, hark ordezkariari egindako lagapena baino ez da jaso behar, pertsona fisikoa edo juridikoa izan baitaiteke.</p> <p>Gogoratu behar da, halaber, izapide horiek egiteko baimena duten pertsonen baimena eman behar zaiela hauek enpresatik irten ondoren. Baimenaren alta eta baja tramiteak egiteko dagokion izapide telematikoen bidez egiten dira.</p>



Orokorra	<b>G15</b>	<b>Ordezkarri gisa gaitutako enpresaren kasuan, balio du instalatzailearen ziurtagiri digitalarekin edo nahitaez izan behar du enpresarena?</b>
	<b>E15</b>	Pertsona juridikoak izapidetzean, beti eskatuko da izapidetzeko baimena duen pertsona fisikoa identifikatzea haren izenean (sinaduraren arduraduna). Instalatzailearen ziurtagiri digitalarekin izapidetu nahi baduzu, enpresak baimena eman behar dizu izapidetze telematikoko aplikazioaren baimenen kudeatzailea erabiliz.



Orokorra	<b>G16</b>	<b>Nork sinatu behar du erantzukizunpeko adierazpena? Titularrak? Instalatzaileak? Enpresa (gerentea)? Teknikaria? Proiektuaren egilea? Norbait konkretu izateko betebeharririk ba al dago?</b>
	<b>E16</b>	Erantzukizunpeko adierazpenaren sinatzailea da adierazpen hori administrazioari ematen dion pertsona, eta titularra zein haren ordezkaria izan daiteke (instalatzailea). Ez dago pertsona jakin bat izateko betebeharririk, baina izapidegileak titularraren ordezkari izan behar du, titularra bera ez bada. Aurkeztutako adierazpenaren arduraduna instalazioaren titularra da, bai titularrak berak sinatu badu, bai ordezkariak sinatu badu. Aurkezlearen erantzukizuna izango da aitortutako datuak titularrak duen dokumentazioan agertzen direnak izatea.





Orokorra	<b>G17</b>	<b>Enpresa instalatzaileko teknikariak sinatzen badu, aseguru partikular bat eduki behar du balizko zehapenak/kalteak estaltzeko, edo enpresako batean sar daiteke? Zer klausula bete beharko lituzke?</b>
	<b>E17</b>	81/2020 Dekretuak ez du aldatzen araudiaren arazko erantzukizunak, ez eta agenteak gaitzeko betekizunak ere, eska daitekeen erantzukizunaren estaldurari dagokionez. Eskakizun horiek araudi sektorial bakoitzean ezarrita daude.



Orokorra	<b>G18</b>	<b>Nola formalizatzen da titularraren ordezkaritza agente parte-hartzaile bati lagatzea erantzukizunpeko adierazpen bat aurkezteko? Ba al dago titularraren ordezkaritza lagatzeko eredurik? Dokumentu hau inon dago eskuragarri? Eredu ofiziala izan behar du? Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirietarako erabiltzen den berak balioko luke?</b>
	<b>E18</b>	Titularraren ordezkaritza agente parte-hartzaile bati lagatzen bazaio erantzukizunpeko adierazpen bat aurkez dezan, bi aldeek sinatutako dokumentu baten bidez formalizatzen da. Dokumentu horretan, ordezkaritza horren xedea edo irismena zehazten da, eta titularrak administrazioaren esku egon behar du hark hala eskatzen duenean. Badago erabil daitekeen eredu bat, hemen eskuragarri dagoena: <a href="https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eskabidea/ordezkarrien-erregistro-elektronikoan-izena-emateko-imprimakia/">https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eskabidea/ordezkarrien-erregistro-elektronikoan-izena-emateko-imprimakia/</a> ; baina eredu hau ez da derrigorrezkoa, beste era batera ere egin daiteke.



Orokorra	G19	<p>Aurreko urteetan altan emandako instalazioak automatikoki industria-erregistroan kontsulta daitezke, edo datuak ekipo berrien alta gisa sartu beharko dira? Enpresa bateko ordezkari batek eskura al ditzake titular horren izenean industria-erregistroan alta emandako instalazioen datu guztiak kontsulta/kudeaketarako, edo plataforma erabil al dezake soilik instalazioak aldatzeko, alta emateko eta baja emateko? Dokumentazioa aurkezterakoan akatsen bat egonez gero (datu okerra edo osatugabea, dokumentaziorik eza), erantzukizuna nori dagokio? titularrari edo dokumentazio hori aurkeztu duen ordezkariari?</p>
	E19	<p>Aurreko urteetan zerbitzuan jarri eta jakinarazi ziren instalazioak instalazioen erregistroan inskribatuta daude; beraz, ez da beharrezkoa berriro inskribatzea. Oraingoz, ezinezkoa da kontsulta horiek online egitea, baina administrazioa sistema bat garatzen ari da hori posible izan dadin. Instalazio baten datuak kontsultatu behar badira, eskaera bat egin beharko da erregistro orokor elektronikoaren bidez, titularraren ordezkariak egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuta. Artxibo nagusiaren bidez ere eskura daiteke informazioa, esteka honetan: <a href="https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/liburutegia-artxiboa-argitalpenak/artxibo-nagusia/">https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/liburutegia-artxiboa-argitalpenak/artxibo-nagusia/</a></p>



Orokorra	<b>G20</b>	<b>Beharrezkoa al da erantzukizunpeko adierazpen bat nire enpresan aplikatzen dudana industria-segurtasuneko jarduera bakoitzeko? Edo adierazpen batekin nahikoa da. Trantsizio-aldi bera dago industria-segurtasuneko eskakizun guztietarako, edo batzuek beste batzuek baino aldi handiagoa dute.</b>
	<b>E20</b>	81/2020 Dekretuaren 10.2 eta 14.g) artikuluetan jasotako kasuetako jarduketa bakoitzeko erantzukizuneko adierazpen bat behar da



Orokorra	<b>G21</b>	<b>Gaitutako enpresa batek pertsona bati egoitza elektronikoan izapide telematikoak egiteko, espedienteetara sartzeko, betetzeko, eransteke, dokumentuak aurkezteko, baimena emateko, zer egin behar du?</b>
	<b>E21</b>	<p>Izapideak egiteko erabiliko duten figura (titularraren ordezkaria edo baimendua) titular bakoitzaren borondatearen araberakoa izango da. Titularraren ordezkari gisa izapideak egiteko, hark ordezkariari egindako lagapena baino ez da jaso beharko, pertsona fisikoa edo juridikoa izan baitaiteke.</p> <p>Horretarako aplikazio telematikoan baimen-izapidea bete, baimendutako pertsoneri enpresaz aldatzen direnean edo egoitza elektronikoan izapide telematikoak egiteari uzten diotenean baja eman behar zaiela ahaztu gabe.</p>



<b>Orokorra</b>	<b>G22</b>	<b>Adierazpena bidali ondoren, zigilua duen adierazpena nola lor daiteke?</b>  <b>E22</b> Tramitazioa amaitu eta gero, erantzukizunpeko adierazpen zigilatua lan-arloan aurkeztutako eskaeren karpetan gordeko da, bai titularreanean, bai izapidegilearenean (Nire karpeta)
-----------------	------------	--



Orokorra	<b>G23</b>	<b>Titularrak, beste dokumentu batzuen artean, ziurtagiriaren egilearen gaitasuna frogatzen duen dokumentu bat eduki behar du. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak igorritako eta zigilatutako instalatzaile-txartelaren kopia bat balio al du? Eusko Jaurlaritzak emandako eta zigilatutako enpresa baimenduaren ziurtagiriak balio al du, non enpresa instalatzailearen izena eta zenbakia agertzen dira, eta baita instalatzaile baimenduaren izena eta alta-zenbakia ere?</b>
	<b>E23</b>	Gaitutako jardueri dagokienez, jardueraren titularrak gaikuntzari dagokion ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazio guztia eduki behar du (txartelak, ziurtagiriak). Instalazioei dagokienez, instalazioaren titularrak instalazioari buruzko dokumentazioa eduki beharko du, gaitutako enpresa bateko instalatzaile gaituak sinatutako ziurtagiriak barne, baina ez enpresaren gaikuntza-ziurtagirien kopia.



Orokorra	G24	<b>Dekretu berriak etxebizitzak eraberritzeko ziurtagiriei eragiten die?</b>
	E24	Dekretu berriak instalazio berriei edo lehendik dauden instalazioetan egindako aldaketei eragiten die, etxebizitzak eraberritzerakoan egiten diren bajak barne





Orokorra	G25	<p>Komunikazioak izapidetzeko plataforman sartzeko, aurkezpenean, izapidegilea enpresa bat bada, erakundearen ziurtagiri bat erabiliko dela adierazi da. Ziurtagiri hori pertsona bati lotuta dago beti, haren ordezkari gisa, eta, horri dagokionez, honako zalantza hauek sortzen zaizkit: kasu honetan, erantzukizunpeko adierazpena sinatzeari buruz aipatu den erantzukizuna legezko ordezkari gisa agertzen den pertsona horrena da, edo, halakorik ezean, enpresa pertsona juridiko gisa? Izapideak egiteko, baina gaitutako enpresak babestuta eta pertsona gisa jardun gabe enpresan lan egiten duen pertsona baten herritar-ziurtagiria erabiltzeko aukerarik ba al dago? Erantzuna baiezkoa bada, erakundearen ziurtagiria erabiliz gaitutako enpresako pertsonak izapidetutako espedienteen historia eta banakako ziurtagiriak kontsultatzea posible izango litzateke?</p>
	E25	<p>Dokumentazioa edukitzea, instalazioa mantentzea eta nahitaezko ikuskapenak egitea Titularraren ardura da. Izapidetze egokiaren erantzukizuna izapidegileari dagokio, pertsona fisikoa, juridikoa edo erakunde publikoa izan daiteke, eta ez azken horiek baimendutako sinadura-arduradunari, betiere pertsona fisiko horrek arduraz jokatzeko badu. Hala ez bada, baimena eman dion pertsonak eskatu ahal izango dizkio dagozkion erantzukizunak. Egiaztapen telematikoaren dokumentua izapidetuz Herritarraren ziurtagiria lan egiten duen enpresaren ziurtagiarekin lotzen da.</p>



<b>BT</b>	<b>G1</b>	Noiz jakinarazi behar zaio Industriari instalazio bat eten dela? BT instalatzailea naiz, guri dagokigu? Egin behar badugu, nola egiten da? Zer dokumentu eman behar dizkiogu instalazioaren titularrari? Noiz izapidetzen dira behin-behinekoak, zenbait egunetarako, edo baita 1erako ere, orain aurkezten ez den dokumentazioa entregatuko da?
	<b>E1</b>	Instalazioa eraisten denean edo instalatzaile gaitu batek aurretik esku hartu gabe erabili ezina bihurtzen denean. Instalazio bati baja ematearen arduraduna titularra da, baina haren ordezkariak instalatzaileak egin dezake.



BT	G2	Instalatzaileak (kasu honetan, bt instalazio elektrikoena) instalazio baten erantzukizunpeko adierazpen bat sinatzen du, eta titularrak bere kontura aldaketa bat egiten du, edo denborarekin lokalaren jarduera aldatzen du, edo baja ematen dio, nola izango dut aldaketa horien berri? Nor da aldaketa horien arduraduna?
	E2	Instalazioen aldaketak hasierako instalatzaileari jakinarazteko betebeharririk ez da ezartzen. Titularrak nahitaez komunikazio horiek edo baja administrazioari jakinarazi behar dizkio; aldaketa horien arduraduna titularra da, eta instalazioari dagokion dokumentazio guztia administrazioaren eskura utzi beharko du, instalazioaren balio-bitza osoan zehar egindako aldaketak barne.



BT	G3	<p>Aurkezpenean adierazi denez, behe-tentsioko instalazio bateko izapidegileak, besteak beste, honakoak izan daitezke: instalazioa exekutatu duen instalatzailea (enpresa instalatzaile kualifikatuaren barruan BTko kualifikazio-ziurtagiria – CCBT- duena,), proiektua egin duen teknikaria eta Obra Zuzendaritzako Ziurtagiriaren egilea. Edozein kasutan, instalazioaren tramitazioa titularraren ordezkartzan egiten dela ulertzen dut. Azalpena: kasu horietan guztietan beharrezkoa al da Ordezkaritza dokumentua izatea eta, baiezkoa bada, izapidean eranstea beharrezkoa da? Ba al dago formatu elektronikoan edo paperean erabiltzeko moduko ordezkartza-dokumentu "ofizialik"?</p>
	E3	<p>Bai, titularrak ordezkartzaren dokumentua administrazioaren eskura izan behar du, dagokion ordezkartza kasu guztietan beharrezkoa dena, baina ez da beharrezkoa izapidetzean eranstea. (informazio gehiagorako E18 erantzuna ikusi)</p>



BT	P4	<b>Nahitaezkoa da BTko instalazio elektriko guztiek, berriek zein zaharrek, instalazioari buruzko erantzukizunpeko adierazpena duen instalatzaile bat izatea? eta etxebizitza, garaje, eta abarren jabeen erkidegoan derrigorrezkoa izango da?, hala bada, erantzukizunpeko adierazpena duen erreferentziazko argiketaria ez den beste argiketari batek esku hartzen badu, nola jokatuko litzateke ezbeharren bat gertatuz gero.</b>
	E4	<p>2020ko urriaren 1etik aurrera izapidetutako instalazio berriek edo aldatetek erantzukizunpeko adierazpena izango dute, instalatzaileak edo titularraren beste ordezkari batek eginikoa. Data hori baino lehenagokoek abiarazte-dataren arabera jakinarazpena, abiarazte-akta eta abar izango dituzte.</p> <p>Ez dago "erreferentziazko argiketaria". 81/2020 Dekretuarekin instalazioak aldatzeko erantzukizunak ez dira aldatu.</p>



BT	G5	<p>Behe-tentsioko, goi-tentsioko eta sorkuntzako erantzukizunpeko adierazpenetan honako hau dator: "Honela jardunez honela jokatzeko instalazioaren titularraren titularraren ordezkaria (*)" ez al litzateke hirugarren bat faltako kasu honetan instalatzaileari dagokionez? Izan ere, hirugarren xedapen gehigarrian honako hau esaten da: behe-tentsioko edo sorrerako instalazio elektrikoaren erantzukizunpeko adierazpena instalatzaileak berak izapidetzen badu, adierazpen hori araudiaren eta energia-horniduraren ondorioetarako Instalazio Ziurtagiriaren baliokidea izango da (buletina). Erantzukizunpeko adierazpenean enpresa instalatzailea eta IFZ bakarrik jartzen ditu. Ez al legoke ondo enpresa instalatzailea, instalatzaile baimendua eta dagozkion EIBT eta CCBT jartzea? Hirugarren xedapen gehigarriko 3. puntuan honako hau jartzen du: izaera bereziko aldi baterako obra edo ekitaldiei atxikitako industria-segurtasuneko instalazioen hornidura elektrikoa lortzeko, enpresa banatzaileari edo hornitzaileari erregelamenduz ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko zaio. Erantzukizunpeko adierazpenarekin nahikoa izango litzateke edo Diseinuaren Memoria Teknikoa ere erantsi beharko litzateke?</p>
	E5	<p>Instalatzaileak titularraren ordezkari gisa jardungo du. Enpresaren eta instalatzailearen EIBT eta CCBT kodeak, hurrenez hurren, islatzeari dagokionez, kontuan hartu behar da kode horiek erkidego honetako enpresei dagozkiela eta CCBT txartela ez dela nahitaezkoa lanbidean jarduteko. Arauzko baldintzak betetzea derrigorrezkoa da.</p> <p>Aplikazioan instalatzailearen izena eta NANA jasotzen dira, eta, beraz, dagoeneko identifikatuta dago, haren txartel-zenbakia jarri beharrik gabe.</p> <p>Aldi baterako kontratuei dagokienez, erantzukizunpeko adierazpena izapidetzeko orduan ez da beharrezkoa MTDa aurkeztea.</p>



Hidrokarburoak	G1	Hitzaldiaren hasieran hidrokarburoen sektorearen administrazio-baimena behar duten instalazioak ez direla aplikatuko adierazten da. Beraz, zerbitzuguneak kanpoan geratzen direla ulertzen da? dekretu honek nire empresan, hidrokarburoak biltegitratzen eta petrolio-produktuak banatzen dituen, eraginik duen jakin nahi nuke?
	E1	Zerbitzuguneen jarduerak ez du aurretizko administrazio-baimenik behar; beraz, zerbitzuguneak ez dira dekretu honetatik kanpo geratzen.



Presio ekipoak	<b>G1</b>	<b>Hemendik aurrera, presio-ekipoak zerbitzuan jarri direla jakinarazten denean nola kudeatzen da plaken bidalketa? Orain arte posta arruntez bidaltzen ziren ekipoen zerrendarekin batera. Berdin izaten jarraituko du?</b>
	<b>E1</b>	Bai, plaken bidalketa prozedura ez da aldatu





Presio ekipoak	G2	Lehendik dauden konpresoreak eta lehendik dauden presio-deposituetako bat antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuekin berrituz gero eta aldaketa horiek instalatutako potentzia (aldez aurretik baimendutakoa) aldatuko ez dutela kontuan hartuta, jakinarazpena egin behar da? Dekretuaren azalpen-bideoa ikusita, instalatutako potentzia handitzen ez bada erantzukizunpeko adierazpenik ez dela behar argi geratu zait, baina handitzen bada, komunikazioa egin behar da?
	E2	Dagokion araudiak hala ezartzen duen kasu guztietan administrazioari jakinarazi behar zaio. Informazio hori emateko, 81/2020 Dekretuaren 14 g) artikuluan ezarritako kasuetan erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, 14 f) artikuluan ezarritako kasuetan, eta jakinarazpen bat.



Beste instalazioak	<b>G1</b>	<b>Zalantza batzuk ditugu, erantzukizun-deklarazioa zein kasutan egin behar den eta noiztik hasi daitekeen egiten, industria-orrian oraindik ez baitago indarrean. Kasuak: galdara aldatzea, eraistea edo gas-sukalde baten instalazioa. Ur-instalazioetako altak (garbiketa-kontagailu baterako bada ere) ur-buletinak telematikoki izapidetu daitezke?</b>
	<b>E1</b>	919/2006 Errege Dekretuak, gasa hartzen duten 70 kw baino gutxiagoko instalazioen dokumentazioa gasa banatzen duten enpresetan izapidetu behar dela ezartzen du. 81/2020 Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriak dioen bezala, industria-segurtasunaren arloan eskumena duen organoaren aurrean barneko ur-instalazioak izapidetzeko eskakizuna kendu egiten du, eta beraz ezin da telematikoki izapidetu.



Instalazio termikoak	<b>G1</b>	<b>Galdararen potentzia % 25eko potentziatik gora aldatzen denean, erantzukizunpeko adierazpena egin behar da? Hala bada, ez daukat argi nola egin?</b>
	<b>E1</b>	Galdararen potentzia % 25etik gora aldatzen bada, organo eskudunari erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko zaio. Izapide hori egiteko, instalatzaileak, titularraren ordezkari gisa, proiekturik gabeko instalazio termikoa zerbitzuan jartzeko prozedura hautatu behar du ( $p < 70$ kw), eta honako aukera hau hautatu behar du: "Eraberritzea/sorgailu-aldaketa, gehienez ere % 70kw eta gehienez % 25".



<p><b>Instalazio Termikoak</b></p>	<p><b>G2</b></p>	<p>Gas-proiektua eta proiektu termikoak dituzten instalazioen izapidetze-aldaketa argitu behar dugu; adibidez, galdara-gela batena. Aldaketa bakarra Administrazioak orain arte igortzen zituen dokumentuetan dela ulertu dut, orain ez direla emango salbuespenak izan ezik, eta uste dut horietako bat instalazio termikoak direla. Orain arte, galdara-gela baten kasuan, agenteek, enpresa instalatzaileek/ingeniaritzek aurkezten diguten dokumentazioa honako hau da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Gas hartzeko instalazioaren proiektua. Berdin jarraitzen duela ulertzen dugu</li> <li>▪ Gas-ziurtagiriak. Berdin jarraitzen duela uste dugu?</li> <li>▪ Gas hartzeko instalazioaren obra-zuzendaritzaren ziurtagiria, Elkargoak ikus-onetsia edo teknikari eskudunaren adierazpenarekin. Berdin jarraitzen duela uste dugu</li> <li>▪ Gas hartzeko instalazioa martxan jartzeko jakinarazpena. Ezabatu eta ordeztu egiten da zigilatutako sarrera-ziurtagiriarekin eta erantzukizunpeko adierazpen zigilatuarekin?</li> <li>▪ Instalazio termikoaren obra-zuzendaritzaren ziurtagiria, Elkargoak ikus-onetsia edo teknikari eskudunaren adierazpenarekin. Berdin jarraitzen duela uste dugu</li> <li>▪ Instalazio termikoa martxan jartzeko komunikazioa. Hemen, 3. puntuan bezala, zigilatutako sarrera-ziurtagiriarekin eta erantzukizunpeko adierazpen zigilatuarekin ezabatu eta ordeztu egiten da, edo dokumentua izapidetzen duzuen salbuespenetako bat da?</li> </ul>
	<p><b>E2</b></p>	<p>81/2020 Dekretuak enpresa banatzaileei gasa hartzeko instalazioak zerbitzuan jartzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa ez du aldatu, edozein motatakoak direla ere. 81/2020 Dekretua indarrean sartu zenetik, titularrak administrazioari instalazioa martxan jarri dela jakinarazi diola egiaztatzen duen dokumentua behar bezala zigilatutako eta erregistratutako erantzukizunpeko adierazpena da.</p>



Igogailuak	<b>G1</b>	<b>Industriako-aplikazioan igogailu berri bat martxan jartzean, sinatu ondoren, RAE zenbakia jasotzen da eskaeraren justifikazioarekin batera. Hala ere, une berean "instalazioaren identifikazio-komunikazioa" izeneko orria ez da entregatzen, denbora bat igaro arte. Noiz jo daiteke gauzatutzat igogailua zerbitzuan jartzea?, sinadura egitean edo aipatutako dokumentuaren jakinarazpena jasotzean?</b>
	<b>E1</b>	Administrazioari erantzukizunpeko adierazpena bidali eta hark erregistratu ondoren igogailua martxan jarri ahal izango da. Instalazioaren identifikazio-komunikazioa minutu batzuk geroago jasotzen da; izan ere, prozesua automatikoa da, baina "nire karpeta"n jasoko da.



Suteen aurkako babesa	<b>G1</b>	<b>Aurkezpenean suteen aurkako instalazioetarako erantzukizunpeko adierazpena sartzeko aplikazioa oraindik prestatuta ez zegoela aipatu zenuten, eta bi kontu ditut horri buruz: erantzukizunpeko adierazpenaren eredia, in situ lortu behar dut industria-ordezkaritzan? posta elektronikoz bidal diezadakezue? Suteen aurkako instalazio bat izapidetzean, obrazuzendaritza proiektua sinatu duen pertsonaz bestelako batek egiten badu, erantzukizunpeko adierazpena bietako zein sinatu behar du?</b>
	<b>E1</b>	Hurrengo estekako bideoan eredia zelan lortu daitekeen eta ondoren izapidea zelan egin behar den ikus daiteke: <a href="https://www.euskadi.eus/contenidos/recurso_tecnico/industria/eu_def/media/Suteen_Aurkako_Babesa_tramite_Eus.mp4">https://www.euskadi.eus/contenidos/recurso_tecnico/industria/eu_def/media/Suteen_Aurkako_Babesa_tramite_Eus.mp4</a> Erantzukizuneko adierazpena aurkezten duen pertsonak sinatzen du.



<b>Suteen aurkako babesa</b>	<b>G2</b>	<b>Garajeetan eta garaje eta etxebizitzetako aireztapenetan suteen aurkako babes instalazioak legezatzeko, erantzukizuneko adierazpena baino ez da aurkezten? beste dokumenturik beharko nituzke?</b>
	<b>E2</b>	Administrazioari erantzukizunpeko adierazpena bakarrik aurkezten zaio, harekin batera beste dokumenturik aurkeztu beharrik gabe. Titularrak administrazioaren esku izan beharko du araudian ezarritako gainerako dokumentazioa.



Suteen aurkako babesa	G3	<p>Instalazio baterako hainbat instalatzaile dituen obra bat. Adibidez, suteen aurka babesteko instalazio batean, enpresa bat alarma-sistemaz arduratzen da, beste bat suaren kontrako hormetako morteroa aplikatzen du. Enpresa bakoitzak dagokion instalazio-ziurtagiria egin behar du? Argi daukat baietz. Enpresa bakoitzak gauzatu duen instalazioaren zatiaren ziurtagiria egin beharko du? Kasu bakoitzari dagokion obra-amaierako ziurtagiria egin behar da edo bakarra egiten da instalazio osorako? Izan ere, bigarren kasuan, ze enpresa jartzen da enpresa instalatzaile gisa (bat baino gehiago badaude)? erantzukizunpeko adierazpenari dagokionez, Bat enpresa instalatzaile bakoitzeko edo bakarra obrako buruaren aldetik instalazio osorako? Nire zalantza, berriz ere, dokumentu horretan zein enpresa instalatzaile jarri behar den da, enpresa bakar bat jartzeko lekua baitago.</p>
	E3	<p>Aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak instalazioaren zati guztien datu guztiak jaso behar ditu eta hauek administrazioari aurkezten dituenak datu horiek zuzenak eta zilegiak direla egiaztatzen du eta horren erantzulea da ; hala ere, atal bakoitzean parte hartzen duen agente bakoitzak araudia betetzeko erantzukizuna dauka.</p>





Suteen aurkako babesa	<b>G4</b>	Industria-establezimenduetan suteen aurkako babes instalazio berriak martxan jarriz gero, baliteke instalatzaileak babes aktiboari dagokion zatia egitea, eta arkitektoak, berriz, babes pasiboari dagokiona. Aurreko ziurtagirietan jasota gera zitekeen hori; izan ere, obra-zuzendaritzaren ziurtagiria babes pasiboarekin lotuta zegoen (beraz, ohikoa zen arkitektoak sinatzea), eta instalatzailearen ziurtagiria, berriz, babes aktiboarekin. Hori orain aldatu egiten dela ulertu dut, eta erantzukizunpeko adierazpen bakarra aurkeztu behar dela; aurkezten duena instalatzailea bada, instalazio osoaren erantzule egiten al da, babes pasiboa barne?
	<b>E4</b>	Erantzukizunen araubidea ez da aldatu, adierazpena aurkezten duena administrazioari helarazten dizkion datuen erantzule egiten da.